No es suficiente porque el “espiritu” del Decreto en materia de dotaciones es el de materializar las dotaciones en toda la zona urbana y no solo en las periferias.

Ez da legearen araberakoa Dekretuak, 7. artikuluan, 2. puntuan, hau dioelako: “Tokiko sistemen estandarrak lekualdatzearen ondorioz estandar horiek betetzeko behar diren lurzoruak egongo dira dagozkien jarduketetatik ahalik eta gertuen”. Horrek esan nahi du AU05 Ategorrieta eta IN02 Intxaurrondo Zaharra eremuetako eraikigarritasunaren gehikuntzagatiko konpentsazioengatik kobratutakoak balio behar lukeela zuzkidurak inguru horietan bertan gauzatzeko, eta ez, Igeldon. Horrexegatik galdetu genuen batzordean zein den zuzkidurak gauzatzeko mentatutako diru zenbatekoa, bai maila globalean zein lokalean bi eremu horietan. Erantzuna izan zen zinegotzi ordezkariak zenbatekoak ez zituela eta idatziz igorriko zituela. Mozioak erregistratzeko epea ordu gutxi barru amaituko da eta zifren berri izan gabe jarraitzen dugu.

No ajustado a la Ley porque el Decreto, en su artículo 7, punto 2, indica que “La ubicación de los suelos precisos para el cumplimiento, por traslado, de los estándares de sistemas locales, se fijará en el lugar más próximo posible a las actuaciones a las que las mismas se deben”. Esto significa que lo que se ha cobrado de compensaciones por incremento de edificabilidad en los ámbitos AU05 Ategorrieta e IN02 Intxaurrondo Zaharra debería servir para materializar dotaciones en estas mismas zonas, y no en Igeldo. Por este motivo preguntamos en comisión cuál es la cantidad económica acumulada para materializar dotaciones, tanto a nivel global como a nivel local de esos dos ámbitos. La respuesta que tuvimos fue que el Concejal Delegado no tenía las cifras y que las transmitiría por escrito. A escasas horas de acabar el plazo para registrar las mociones, seguimos sin conocer esas cifras.

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio bete dezala legeak dioena eraikigarritasuna handitzeagatiko zuzkiduratarako eta ekipamendutarako lursail erreserba gaietan.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que cumpla con la Ley en materia de reserva de terrenos destinados a dotaciones y equipamientos por incremento de edificabilidad.

2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio txosten bat egin dezala egungo egoera zehazteko eraikigarritasuna

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que realice un informe detallando la situación

handitzeagatiko zuzkiduratarako eta ekipamendutarako lursail erreserbari dagokionez, datu hauek barne, gutxienez:

- Udal eremu bakoitzerako: eraikigarritasunaren gehikuntza jarduketetan zuzkidurak gauzatu ezinagatik kobratutako konpentsazio ekonomikoen zenbatekoen eta daten zerrenda.

- Zuzkidurak gauzatzeko aurreikusitako lursailen zerrenda eta aurreikusitako plangintza kronologikoa.

1. Donostiako Udalak udal gobernuari eskatzen dio erabil ditzala Uliako mintegiak hiri lurzoruan zuzkidurak eta ekipamenduak gauzatzeko betebeharra betetzeko, lursaila hiri parke bilakatuz, Legeak ezarritakoaren arabera.

Izpta.: Loïc Alejandro
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

actual en materia de reserva de terrenos destinados a dotaciones y equipamientos por incremento de edificabilidad que presente, como mínimo, los siguientes datos:

- para cada ámbito municipal: lista de las cantidades y fechas de los cobros de compensaciones económicas por imposibilidad de materializar dotaciones en las actuaciones de incremento de edificabilidad.

- Lista de las parcelas previstas para materializar las dotaciones y planificación cronológica prevista.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que utilice los Viveros de Ulia para cumplir con su obligación de materializar dotaciones y equipamientos en suelo urbano, convirtiendo la parcela en parque urbano, de acuerdo con lo que exige la Ley.

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**9. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**9. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**9. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, 5. edukiontziari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia Udal Taldearen Bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udal Batzarraren Araudi Organikoko 98. artikuluarekin bat etorriz, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkeztu du hil honetako ko Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

**II.2.10. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el 5º contenedor.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de del presente mes.

JUSTIFICACIÓN

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Cristina Enea fundazioak egindako Iraunkortasun txostena argitaratu da orain berriki, eta bertan, gure hirian hondakinen bilketari buruzko datuak eskaintzen dira. Hain zuzen ere, gaikako bilketa tasa bildutako hondakin guztien % 38 da, eta horrek esan nahi du pisu guztiaren % 62k hondakindegian amaitzen duela.  Kopuru hori nahiko genukeenetik oso urrun dago oraindik.

Recientemente ha sido publicado el informe de Sostenibilidad realizado por la fundación Cristina Enea, en el que se desvelan datos de recogida de residuos en nuestra ciudad. En concreto, la tasa de recogida selectiva supone un 38% sobre el total de residuos recogidos, lo que significa que el 62% del peso total acaba en los vertederos.  Esta cifra está todavía muy lejos de lo que sería deseable.

Gai organikoari dagokionez, edukiontziak udalerri osora hedatu ondoren, 2013an kopuru osoaren % 3 izatetik 2014an % 8 eta 2015ean % 16 izatera igaro da. Beste datu esanguratsu bat aipatzearren, Donostiako familien % 27 horri atxikita daude.

Respecto a la materia orgánica, con la implementación de los contenedores en todo el municipio, pasa de representar un 3 % del total en 2013 y un 8 % en 2014 a un 16 % en 2015. Otro dato es que hay un 27% de familias donostiarras adheridas.

Hondakinen bilketa sistemari dagokionez, gobernuaren programak berariaz dio edukiontzietan oinarritutako bilketa sistema baten aldeko apustua egiten duela.  Joan den legegintzaldian gai organikoarentzat xedatutako 5. edukiontzia ezartzen hasi ziren, baina halere, beira, papera edo ontzien edukiontziekin gertatzen ez den bezala, oraindik ere edukiontzi uharte askok ez dute 5. edukiontzirik.

Respecto al sistema de recogida de residuos, en el programa de gobierno se dice explícitamente que se apuesta por un sistema de recogida basado en contenedores.  La legislatura pasada se comenzó a implantar el 5º contenedor destinado a materia orgánica, sin embargo, al contrario de lo que pasa con los contenedores de vidrio papel o envases, todavía son muchas las isletas de contenedores que no disponen del 5º contenedor.

Organikoaren frakzioa sortutako hondakin bolumen osoaren zati handi bat da, eta gehienak hondakindegian amaitzen du, horrek berarekin dakarren kostu ekonomiko eta ingurumen kostu guztiarekin.

La fracción de orgánico supone una gran parte del volumen total de residuos generados que en su mayor parte está acabando en vertederos, con el coste económico y medioambiental que ello supone.

Uste dugu edukiontzi hau erabil dadila bultzatzeko modu on bat izan daitekeela, orain berriki abian jarri den zerga pizgarria bezalakoak ezartzeaz gain, horrelako edukiontziak etxeetatik hurbil egon daitezela sustatzea.

Creemos que una buena forma de fomentar el uso de este contenedor es, además de implantar  incentivos fiscales como el que recientemente se ha introducido, el promover la proximidad de estos contenedores a los hogares.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Arazo hori mahai gainera ekarri genuen batzordean erantzun ziguten gaur egun 400 edukiontzi inguru daudela hiri osoan barrena banatuak. Eta edukiontzi berrien ezarpena aldez aurreko eskaeraren bitartez arautua zegoela.

Gaikako bilketako beste edukiontzi batzuekin ez dute horrela jokatu, eta aldez aurretik eskaerarik dagoen kontuan izan gabe ezarri dira, eta esate baterako, paperaren eta beiraren kasuan, erabilera tasa handia erakutsi dute. Hala eta guztiz ere, aspalditxotik ezarriak egon arren, frakzio horiek arrakasta nabarmena dute bilketan. Uste dugu, gauza berri guztiek bezalaxe, herritarrek denbora behar izaten dutela ohitura berriak bereganatzeko. Beharrezkoa da kontzientziazio lanarekin aurrera jarraitzea, baina beharrezkoa da, baita ere, herritarrei hondakinen gaikako bilketa erraztea.

Horrexegatik, ondorengo mozioa aurkezten dugu

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udal Batzarrak bertako Gobernuari eskatzen dio pixkanaka gai organikoarentzat xedatutako 5. edukiontzia ezartzen joan dadila hiriko edukiontzi uharte guztietan.

Stua.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.".

En la comisión donde planteamos esta cuestión, se nos respondió que había en la actualidad cerca de 400 contenedores repartidos por toda la ciudad. Y que la implantación de nuevos contenedores se regulaba mediante la demanda previa.

No es así como se ha funcionado con otros contenedores de recogida selectiva, que sencillamente se han implantado sin depender de una demanda previa, demostrando por ejemplo en los casos del papel y el vidrio, su elevada tasa de utilización. A pesar de ello, tras llevar tiempo implantados, son fracciones que tienen un notable éxito en la recogida. Creemos, que como todo lo nuevo, los ciudadanos necesitan un tiempo para adquirir nuevas costumbres. Es necesario seguir con la concienciación pero también es necesario facilitar a la ciudadanía la recogida selectiva de residuos.

Es por ello que planteamos la siguiente

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno a progresivamente, ir implantando el 5º contenedor para la materia orgánica en todas las isletas de contenedores de la ciudad.

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Amaia Martin Garin andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.11. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, Belartzagaina (Belartza II) AÑ 13.1 azpialorraren erabilera dela eta.**

**II.2.11. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el uso del subámbito AÑ13.1 Belartza Alto (Belartza II).**

**KENDUA.**

**RETIRADA.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**II.2.12. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, Belartzagaina (Belartza 2) AÑ 13.1 azpialorreko isurketa dela eta.**

**II.2.12. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el vertido en el subámbito AÑ13.1 Belartza Alto (Belartza II).**

“Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkezten du, LURRALDEAREN GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEAN 2016ko ekainaren 20an aztertu zen Belartzagaina (Belartza 2) AÑ13.1 azpialorreko isurketari buruzko interpelazioaren ondoriotzat.

“Loïc Alejandro, concejal de Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL, consecuencia de la interpelación sobre el vertido en el subámbito AÑ13.1 Belartza Alto (Belartza II) en la COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO del día 20-06-2016

JUSTIFIKAZIOA

Berrikitan, gaurkotasun albisteetako gai nagusietakoa izan da Belartza 2. Izan ere,

JUSTIFICACIÓN

Recientemente la actualidad ha girado entorno al asunto “Belartza II” porque se han realizado

Belartzagaina AÑ13.1 azpialorrean isuri dira mugakide den Belartza Harrobia AÑ13.2 azpialorreko obretatik ateratako lurrak.

Belartzagaina AÑ13.1 azpialorrak egindako administrazio ibilbidea konplexua da:

1. 1995eko Hiria Antolatzeko Plan Orokorrean, landa eremutzat zegoen kalifikatuta ingurua.
2. 2007ko Hiria Antolatzeko Plan Orokorreko aldaketa batean, eremua landakotik urbanizagarrira birkalifikatu zen, eta bi azpialor sortu: AÑ13 eta AÑ14.
3. 2009an, behin betiko onartu zen AÑ14 azpialorreko alorreko plana.
4. Gero, 2009an bertan, AÑ14 azpialorreko urbanizatze jarduketako programa onartu zen.
5. 2010ean, Hiria Antolatzeko Plan Orokor berria onartu zen, eta AÑ14 azpialorrak Belartzagaina AÑ13.1 izena hartu zuen.

Gertaeren kronologia laburra:
- 2016ko otsailaren 23a: behin-behineko betelaneko obretarako baimenaren bidez betelana egiteko eskaera.
- 2006ko apirileko bigarren astea: inguruko auzotarrek ikusi zuten Belartzagaina AÑ13.1 azpialorrean utzi zirela Belartza Harrobia AÑ13.2 azpialorreko obretatik ekarritako materialak.
- 2016ko apirilaren 18a: auzotarrak Udaleko Hirigintza Zuzendaritzara etorri ziren, informazio zabalagoa emateko. Orduz geroztik, Udala egoeraren jakitun da formalki.
- 2016ko maiatzaren 13a: Udaleko zerbitzu teknikoek txostena eman zuten. Txostenean, proiektatutako obra «behin-behineko betelana» zela zehaztu zen.
- 2016ko maiatzaren 15a: zinegotzi

en el subámbito AÑ13.1 Belartza Alto vertidos de tierra provenientes de las obras en el subámbito colindante AÑ13.2 Belartza Cantera.

El recorrido administrativo de AÑ13.1 Belartza Alto es complejo:

1. En el PGOU de 1995 la zona era calificada de rural.

2. En una modificación del PGOU de 2007 se recalifica la zona de rural a urbanizable y se crean dos subámbitos: AÑ13 y AÑ14.

3. En 2009 se aprueba definitivamente el Plan Parcial (PP) de AÑ14.
4. Luego, en 2009 también, se aprueba el Programa de Actuación Urbanizadora (PAU) de AÑ14.

5. En 2010 se aprueba el nuevo PGOU, y AÑ14 pasa a llamarse AÑ13.1 Belartza Alto.

Breve cronología de los acontecimientos:
- 23 de febrero de 2016: solicitud de relleno mediante autorización para obras de relleno provisional.
- Segunda semana de abril de 2016: los y las vecinas de la zona constatan que se depositan en AÑ13.1 Belartza Alto materiales provenientes de AÑ13.2 Belartza Cantera.

- 18 de abril de 2016: los y las vecinas se personan en la Dirección de Urbanismo del Ayuntamiento para ampliar información y desde entonces el Ayuntamiento es formalmente conocedor de la situación.
- 13 de mayo de 2016: se emite informe por los servicios técnicos municipales en el que se califica la obra proyectada como “relleno provisional”.
- 15 de mayo de 2016: el Concejal

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

ordezkariak lizentzia eman zuen, «aurkeztutako proiektuari jarraituz eta txostenean adierazitako baldintzetan», hau da, behin-behineko betelanerako lizentzia.

Delegado concede licencia “de conformidad con el proyecto presentado y en las condiciones señaladas en el informe”, es decir una licencia de relleno provisional.

2/2006 Legeko 36. artikulua aintzat hartuta, lizentzia horren legezkotasuna oso da zalantzazkoa. Artikulu horretan xedatuta dagoenez, behin-behineko erabilerak dira antolamendu xehatua onartu gabe duten alor, sektore edo unitateetakoak. Belartzagaina AÑ13.1 azpialorrean, onartua dago urbanizatze jarduketako programa.

A la vista del artículo 36 de la Ley 2/2006, la legalidad de esa licencia es muy cuestionable. El citado artículo dispone que son usos provisionales los comprendidos en áreas, sectores o unidades de ejecución en los que aún no se ha aprobado la ordenación pormenorizada. En el caso de AÑ13.1 Belartza Alto tenemos un PAU aprobado.

Eusko Jaurlaritzaren nahitaezko txostenak («urak» eta «bioaniztasunaren babesa») isurketa proiektuaren aldekoak dira, eta baldintzatzat ezartzen diote neurri batzuk betetzea. Neurri horiek ez dira errespetatu (zuhaitzei eragin zaie, perimetro itxiturak ez daude, erreka baten ibilguari eragin zaio...). Eta, batez ere, baldintza horiek bete beharra ez da jaso lizentzian.

Los informes preceptivos del Gobierno Vasco (“aguas” y “protección de la biodiversidad”) informan favorablemente el proyecto de vertido condicionándolo al cumplimiento de una serie de medidas. Esas medidas no se han respetado (afección a la masa arbolada, cerramientos perimetrales inexistentes, afección al cauce de una regata, …). Y, sobre todo, esos condicionantes no se han recogido en la licencia.

Bi elementu horiek, zenbait elkarte naturalistek adierazitako beste batzuen artean (Haritzaldek, Eguzkik, Ekologistak Martxanek, zeinek bere berraztertze errekurtsoan, 2016ko maiatzaren 18an), frogatzen dute emandako lizentzia ez dela zuzena, ezeztatu behar dela, eta haren ondorioak lehenbailehen lehengoratu behar direla. Aipatzekoa da elkarte naturalistek erregistratutako berraztertze errekurtsoari ez diola erantzunik eman Udalak. Horrek sumarazten du behinik behin Administrazioarekiko auzi ekintzak izango direla aurki.

Estos dos elementos, entre otros señalados por varias asociaciones naturalistas (Haritzalde, Eguzki, Ekologistak Martxan en sus respectivos recursos de reposición del 18 de mayo de 2016) demuestran que la licencia concedida no es correcta, que debe ser revocada y que sus efectos deben ser revertidos cuanto antes. Cabe señalar que el recurso de reposición registrado por las asociaciones naturalistas no ha sido objeto de ninguna respuesta por parte del Ayuntamiento, dejando entrever próximas acciones de carácter contencioso-administrativo, como mínimo.

Bestalde, lizentziaren gaia alde batera utzita ere, isurketa hori ez zen egin behar. Belartza 2 AÑ.14 ekonomia jarduerako sektore berriko

Por otro lado, dejando ahora de lado el tema de la licencia, ese vertido no se debía haber realizado. En el Plan Parcial del nuevo sector

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

alorreko planean (testu bategina, 2008ko abendua), 4.6.1 puntuan («Lur mugimendua»), hau adierazita dago: «Aurreikusitako lur mugimenduaren eragiketa orokorrak hondeatutako 585.000 m3 dakar gutxi gorabehera, eta antzeko betelan bolumena. Izan ere, plataformen egokiera berariaz kalkulatu da, lurren oreka doitzearren.» Orobat, hau adierazten da: «Lur mugimenduaren eragiketa egiteko oinarrizko irizpide eta helburutzat planteatzen da hondeatutakoaren eta betelanen arteko konpentsazioa».

Horrek esan nahi du alorreko planak berariaz adierazten duela eremuko alde batetik ateratako lurrak eremu bereko beste alde bat betetzeko erabiliko direla, kanpoko materiala gehitu beharrik gabe.

Hala ere, Harrobia AÑ13.2 azpialorretik ateratako lurrak Belartzagaina AÑ13.1 azpialorrean isurtzeko proiektua dokumentuan (2016ko otsailekoa), 3. orrialdean, hau ageri da: «Betelana behin-behinekoa da. Izan ere, Belartzagaina AÑ13.1 azpialorrari urbanizatze lana egingo zaio etorkizunean. Lur horiek etorkizuneko antolamenduaren plataforma taxutzeko baliatuko dira.»

Horrenbestez, isurketa proiektu hori errotik da okerra eta legez kontrakoa, bi arrazoi direla kausa:

- Belartzagaina AÑ13.1 azpialorrean isuritako lurrari erabilera bat ematea planteatzen du; horko alorreko planak, ordea, aukera hori baztertzen du.
- Isurketa proiektua justifikatzen du, euskarritzat «etorkizuneko urbanizatze obra»

de actividad económica "AÑ.14 belartza 2" (texto refundido. diciembre 2008), el punto "4.6.1.- Movimiento de tierras" (P40) indica que "La operación global del movimiento de tierras previsto asciende a un volumen aproximado de 585.000 m3 de excavación y un volumen semejante de terraplenado, ya que la disposición de las plataformas se ha calculado expresamente para alcanzar un equilibrio de tierras ajustado". Asimismo, indica que "se plantean como criterio y objetivo básicos para la realización de la operación de movimiento de tierras la compensación entre las excavaciones y los rellenos".

Esto significa que el Plan Parcial indica claramente que se utilizarán las tierras sacadas por un lado del terreno para rellenar otro lado del mismo terreno, sin necesidad de material adicional ajeno.

No obstante en el "proyecto de vertido de tierras procedentes del subámbito AÑ 13.2 Cantera en el subámbito Añ13.1 Belartza Alto" de febrero 2016, en su página 3, podemos leer: "El relleno tiene carácter provisional dado que el subámbito en AÑ 13.1 Belartza Alto será objeto de una obra de urbanización en el futuro. Estas tierras se aprovecharán para formalizar la plataforma de la futura ordenación".

Por lo tanto ese proyecto de vertido es radicalmente erróneo e ilegal por dos motivos:

- Plantea una utilización de la tierra vertida en AÑ13.1 Belartza Alto mientras su Plan Parcial excluye esa posibilidad.
- Justifica el proyecto de vertido apoyándose sobre una "obra de urbanización

bat erabiliz, nahiz eta Belartzagaina AÑ13.1 azpialorrerako ez dauden onartuta ez birpartzelazio proiektua, ez urbanizatze proiektua.

Hirigintzako zuzendariak, batzordean, argudiatu zuen isurketa horren zati bat Belartza Harrobia AÑ13.2 azpialorrera itzuliko dela, eta beste zati bat Belartzagaina AÑ13.1 azpialorrean erabiliko dela, kalitate hobeko materiala denez tokiko materialaren ordez erabili ahal izango delako. Dena dela, hainbat mila metro kubo material (tokikoa edo isurketakoa) norabait joan beharko dira. Nora joango diren ez da aztertu, ez zehaztu, ezein dokumentutan.

Are gehiago. Material isurketa hori ez litzateke existitu behar. Izan ere, 2016ko otsailekoa den Harrobia AÑ13.2 azpialorreko urbanizatze proiektuaren 2. testu bateginean jasota dagoenez, proiektuak sortutako hondakinak hauek dira: egurra (21 tona); burdina eta altzairua (22,5 tona); igeltsutik abiatuta eta gai arriskutsurik gabe egindako eraikuntza materialak (6 tona); gai arriskutsurik gabeko hormigoiaren, adreiluen, teilen eta zeramikazko materialen (142,5 tona); eta harrikatz mundruna daukaten nahasketa bituminosoak (780 tona). Lur eta harriei dagokien laukia hutsik dago.

Eta 4. puntuan («Obra berean edo kanpo kokalekuetan berrerabiltzeko eragiketen aurreikuspena») adierazita dagoenez, «ez dago aurreikusita inolako berrerabiltze eragiketarik.»

Harrobia AÑ13.2 azpialorreko obrak ez zuen planteatzen «lurra eta harriak»motako hondakinik, ez eta edozein tokitan edozein hondakin berrerabiltzea ere. Hala ere,

en el futuro” a pesar de que no se han aprobado ni el proyecto de reparcelación, ni el proyecto de urbanización de AÑ13.1 Belartza Alto.

El Director de Urbanismo, en comisión, argumentó que parte de ese vertido volverá al subámbito AÑ13.2 Belartza Cantera y que otra parte se utilizará en AÑ13.1 Belartza Alto ya que es material de mejor calidad que se podrá utilizar en lugar del material local. En cualquier caso, varias decenas de miles de metros cúbicos de material (local o del vertido) tendrán que ir a algún lugar. Lugar no contemplado ni especificado en ningún documento.

Es más. Ese vertido de material no debería existir ya que en el Doc. G “estudio de gestión de residuos” del “Proyecto de Urbanización del Subámbito ‘AÑ 13.2 Cantera’” Texto refundido II de fecha febrero 2016, se puede leer que los residuos que genera el proyecto son: madera (21 tn), hierro y acero (22,5 tn), materiales de construcción a partir de yeso sin substancias peligrosas (6 tn), mezcla de hormigón, ladrillos, tejas y materiales cerámicos sin substancias peligrosas (142,5 tn), y mezclas bituminosas que contienen alquitrán de hulla (780 tn). La casilla correspondiente a tierras y piedras está vacía.

Y en el punto “4 - Previsión de operaciones de reutilización en la misma obra o en emplazamientos externos” se indica que “no se prevé operación de reutilización alguna”.

A pesar de que la obra en AÑ13.2 Cantera no plantease ni residuos de tipo “tierra y piedras”, ni reutilización de cualquier residuo en cualquier lugar, nos encontramos con más de

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Harrobia AÑ13.2 azpialorretik datozen lur eta harrien 110 000 m³ baino gehiago (sustatzaileen kopuruak) ditugu. 110 000 m³ horiek ez lirateke existitu behar. Isurketaren administrazio existentziarik ez horri buruz, ez zuten azalpenik eman ez zinegotzi ordezkariak, ez Hirigintzako zuzendariak.

Emandako lizentzia okerrekoa delako, egindako isurketak Belartzagaina AÑ13.1 azpialorreko plan partzialean tokirik ez duelako, eta administrazio existentziarik ere ez duelako, aurkezten dugu ondorengo

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio ezezta dezala Belartzagaina AÑ13.1 azpialorrean isurketa egiteko emandako lizentzia.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio beharrezko kudeaketak egin ditzala, isurketa lehenbailehen ken dezaten eta Belartzagaina AÑ13.1 azpialorra jatorrizko egoeran utz dezaten.

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.".

110 000 m³ (cifras de los promotores) de tierra y piedras en AÑ13.1 Belartza Alto provenientes de AÑ13.2 Cantera. 110 000 m³ que no deberían existir. Sobre esa no existencia administrativa del vertido, ni el Concejal Delegado, ni el Director de Urbanismo dieron explicación alguna.

Porque la licencia concedida es incorrecta, porque el vertido realizado no tiene encaje en el Plan Parcial de AÑ13.1 Belartza Alto, y porque tampoco tiene existencia administrativa, presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que revoque la licencia concedida para el vertido en AÑ13.1 Belartza Alto.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que efectúe las gestiones necesarias para que el vertido sea retirado a la mayor brevedad, dejando el subámbito AÑ13.1 Belartza Alto en su estado original.

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. Enrique Ramos Vispo y D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**12. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 12:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**12. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 12:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

---------------

**II.2.13. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, Iberdrolarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia Udal Taldearen Bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udal Batzarraren Araudi Organikoko 98. artikuluarekin bat etorriz, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkeztu du hil honetan PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte

**II.2.13. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre convenio con Iberdrola.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de SERVICIOS A LAS PERSONAS del presente mes.

JUSTIFICACIÓN

De acuerdo con la Encuesta de Pobreza y

Bazterketari buruzko Inkestak dioenaren arabera, 2014. urtean, Donostiako biztanleetatik % 11,4 –21.000 biztanle baino gehixeago– pobrezia energetikoko egoeran aurkitzen dira. Arazo hauetakoren bat duten etxeak dira:

Exclusión Social de Gipuzkoa, en 2014, un 11,4% de la población donostiarra –algo más de 21.000 personas– se encuentra en situación de pobreza energética. Se trata de hogares con alguno de estos problemas:

- Dituzten diru sarrerekin alderatuta energian egiten duten gastua % 8,5 baino handiagoa da (alegia, Gipuzkoako etxeek duten batez besteko gastuaren bikoitza).

- Su gasto en energía en relación a sus ingresos es superior al 8,5% (es decir, el doble del gasto mediano para los hogares guipuzcoanos);

- Hilabete hotzetan etxea tenperatura egokian mantentzea ezinezkoa zaiela aitortzen dute;

- Declara que no puede mantener la vivienda con una temperatura adecuada durante los meses fríos;

- Zailtasun ekonomikoen ondorioz, atzerapenak izan dituzte uraren, gasaren, elektrizitatearen eta abarren ordainagiriak ordaintzeko.

- Debido a dificultades económicas, ha tenido retrasos en el pago de recibos de agua, gas, electricidad, etc.

Egoera hori kontuan izanik, azaroan kontrol mozio bat aurkeztu genuen, eta gobernuari eskatu genion gasa eta elektrizitatea merkaturatzen duten konpainietara zuzendu zedila, ordainagirien ordainketari aurre egin ezin diezaioketen familiei hornidura moztu diezaietela eragozteko.

Dada esta situación en noviembre realizamos una moción de control emplazando al gobierno a que se dirigiera a las compañías comercializadoras de gas y electricidad, para evitar los cortes de suministro a las familias que no pudieran hacer frente al pago de las facturas.

Udalak Iberdrola enpresarekin hitzarmen bat sinatu berri du, eta horren arabera, zaurgarritasun egoeran aurkitzen diren eta Iberdrolako bezero diren donostiarrak babestu egingo dira. Hitzarmena sinatu ondoren, hornidurаren mozketa beharrezkoa den denboran atzeratuko da, Udalak egiaztatu dezan egokia den ala ez eragindako pertsonaren edo familiaren zorra estaltzea eta, hala egokituz gero, laguntza hori ordaintzea.

El Ayuntamiento acaba de firmar con la empresa Iberdrola un convenio por el cual se protegerá a aquellas y aquellos donostiarras clientes de Iberdrola que se encuentren en situación de vulnerabilidad. Una vez firmado el convenio, el corte del suministro se retrasará el tiempo necesario para que el Ayuntamiento compruebe la pertinencia de cubrir la deuda de la persona o familia afectada y, en su caso, proceda a pagar dicha ayuda.

Gure iritziz hitzarmen hau Iberdrolarekin bakarrik sinatzea diskriminatzailea da

Consideramos que la firma de este convenio exclusivamente con Iberdrola es totalmente

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

hornidura elektrikoa beste konpainia batzuekin kontratatua duten donostiarrentzat, eta guztiz ulertezina da berdintasunaren printzipioa herri administrazioen kudeaketa gidatzen duen printzipio nagusietako bat delako.

discriminatorio respecto a donostiarras que tengan contratados los suministros eléctricos con otras compañías, algo del todo incomprensible cuando el principio de igualdad es uno de los principios rectores de la gestión de las administraciones públicas.

Gai hori Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordera eraman genuenean, Gizarte Ongizateko zinegotziak erantzun zigun gure hiriaren egoera ezin dela parekatu antzeko hitzarmen bat sinatua duten beste batzuekin, Gizarte Larrialdiko Laguntzak kudeatzeko modua azkarra eta eraginkorra delako, eta horrexegatik kasu gutxi daude, eta beste konpainietatik inor ez da Udalarengana zuzendu.

Cuando llevamos esta cuestión a la comisión de Servicios a las Personas, la concejala de Bienestar Social nos contestó que la situación de nuestra ciudad no es equiparable a otras donde se ha firmado un convenio similar, porque la forma de gestionar las AES es rápida y efectiva, por lo que los casos son pocos, y que ninguna otra compañía se ha dirigido al Ayuntamiento.

Nolanahi ere, kasu gutxi egon arren, uste dugu ezin dugula itxoin energia konpainiek ekimena hartu arte, eta Udalak zuzendu behar duela haiengana, haiekin ere antzeko hitzarmen bat sinatu dadin.

No obstante, aunque sean pocos los casos que se dan, consideramos que no podemos esperar a que las compañías energéticas tomen la iniciativa, y que debe ser el Ayuntamiento quien se dirija a ellas con el objetivo de firmar también un convenio similar con ellas.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udal Batzarrak Gobernuari eskatzen dio bidezkoak diren kudeaketak egin ditzala hirian gasaren eta argindarraren hornidura eskaintzen duten konpainia guztiekin hitzarmen bat sinatzeko, Iberdrolarekin izenpetutakoaren antzeko ezaugarriekin, horien ordainketari aurre egin ezin diezaioketen familiei energia hornidura moztu diezaietela eragozteko, eta bide batez, aipatutako hornidura horiek kontratatzen dituen konpainiaren arabera inor ez dadila diskriminatu bermatzeko.

Stua.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea”.

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno a que realice las gestiones oportunas para la firma de un convenio con todas las compañías suministradoras de gas y luz que operan en la ciudad de las características del suscrito con Iberdrola para evitar el corte de suministros energéticos a las familias que no pueden hacer frente al pago de los mismos, y garantizar que no se discrimina a nadie en función de la compañía con la que contrata los citados suministros.

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Donostia".

Amaia Martin Garin andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.14. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, radar mugikor berria dela eta.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi du, Udalbatzan azter dadin, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Zerbitzuak) 2016ko ekainaren 20an izan zuen bileran radar mugikor berria dela eta egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den ekainaren 1ean hasi zen funtzionatzen Donostiako Udalak gidariak zehatzeko erositako radar mugikor berria. Antza denez, gailu hori ausaz erabiliko da gure hiriko dozena bat kaletan; hain zuzen, batez besteko abiadura handiena dutenetan. Kale horiek hautatzeko Donostiako Udalak enpresa bati eskatu zion zirkulazio abiadura aztertzeko prozesu bat gauza zezala

**II.2.14. Moción de control presentada por el Grupo PP relativa al nuevo radar móvil.**

"Doña Miren Albistur Garmendia, portavoz del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 20 de Junio de 2016, relativa al nuevo radar móvil.

JUSTIFICACIÓN

El 1 de junio pasado comenzó a funcionar el nuevo radar móvil que el Ayuntamiento de San Sebastián ha comprado para sancionar a los conductores. Al parecer, dicho dispositivo va a ser utilizado aleatoriamente en una docena de calles de nuestra ciudad, las que mayor velocidad media registran, y que han sido seleccionadas en un proceso de estudio de las velocidades de circulación en 35 calles

Donostiako 35 kaletan.

donostiarras, que encargó el Ayuntamiento a una empresa.

Radar mugikorra hedabideei aurkezteko ekitaldian zinegotzi ordezkariak esan zuenez, Udalaren helburua gidariei abiadura gainditzeko asmoa kentzea da, eta prozesua ez da bat-batean jarriko martxan, pixkanaka baizik. Horretaz gain, zinegotziak erantsi zuen radarra ez dela egunero erabiliko, noizean behin eta pixkanaka baizik, gidarien portaeretan antzemandako joeren arabera. Antza denez, semaforo gutxi dituzten bideetan jarriko da, semaforo edo areka gehiago jartzea komenigarria ez den hiritik irteteko bideetan, hain zuzen.

La Concejala Delegada, en la presentación ante los medios del nuevo radar móvil ha asegurado que la intención del Ayuntamiento es disuadir  a los conductores de exceder la velocidad, y que no se va a ir “a saco, sino poco a poco”. Y que el radar no se va utilizar todos los días sino “de vez en cuando” y de forma paulatina, dependiendo del comportamiento que vayan detectando por parte de los conductores. Parece ser que se va a actuar en vías con pocos semáforos, vías de salida de la ciudad donde no es recomendable poner más semáforos o badenes.

Bitxikeria gisa, radar berria probatzeko eragiketak Federico García Lorca pasealekuan egin ziren. Gure talde politikoak ohartarazia zuen lehendik bilkura honetan adierazitako pasealekuan bide segurtasuneko arazoak zirela, hasiera-hasieratik udal gobernuari helarazi nahi izan genizkion inguruko bizilagunen salaketen arabera. Hasiera batean esan zitzaigun Mugikortasun Departamentuak ez zuela bide segurtasuneko arazorik antzeman García Lorcan, baina, ondoren, iritzi hori aldatu egin zen, zorionez. Berez, radar berriak funtzionatuko duen kaleetako bat hori da. Joan den neguan abiadura neurtu zen Federico García Lorca pasealekuan, eta emaitza izan zen ibilgailuen % 53,66k gainditzen zuela orduko 50 kilometroko muga.

Curiosamente, la prueba del nuevo radar se realizó en Federico García Lorca, vial sobre el que este Grupo político ya avisó en esta casa de que estaba padeciendo problemas de seguridad vial, haciéndonos eco de varias denuncias presentadas por vecinos de la zona y que quisimos compartir con el Gobierno Municipal desde el primer momento. En un principio, se nos dijo que  el Departamento de Movilidad no había observado problemas de seguridad vial en García Lorca; criterio que, afortunadamente, se corrigió posteriormente. De hecho, una de las calles donde va a actuar el nuevo radar móvil es ésta. Durante el invierno pasado, se midió la velocidad en Federico García Lorca y el resultado fue que el 53,66% de los vehículos superaban el límite de 50 kilómetros/hora.

Gobernu Taldeak behin eta berriz esan du helburua ez dela diru bilketa, disuasioa baizik. Hala ere, ez da seinalerik jarriko radarra dagoela jakinarazteko; ez dakigu noiz eta non erabiliko den; ez da kontzientziatzeko kanpainarik egin aldez aurretik, bizikletekin

Aseguran desde el Equipo de Gobierno que el fin no es recaudatorio sino disuasorio. Sin embargo, no se van a poner señales que avisen de la presencia del radar, no se sabe dónde ni cuándo se va a utilizar, no se ha realizado ninguna campaña de concienciación

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

egin zen moduan (urtebetean hirugarren kontzientziazio kanpaina dugu eta kexak biderkatzen ari dira).

previa, como en el caso de las bicicletas, donde vamos por la tercera campaña de concienciación en un año y las quejas no hacen más que ir en aumento.

Radar mugikor berria bide ondoko espaloian jarritako tripode batekin erabil daiteke: prozedura "arrunt" bat, zinegotzi ordezkariaren arabera. Baina agian ez da hala izango, eta agenteak ibilgailu barruan izango dira, edo bide publikoko elementuren baten atzean ezkutatuta. Zinegotzi ordezkariak berretsi du agenteak ez direla “kamuflatuko”. Nolanahi ere, eta pentsatzen genuen bezala, gauzak ez dira horrela izaten ari, eta hainbat bizilagunek eta gidarik eginiko argazkietan (sare sozialetan partekatu dira) argi eta garbi ikus daitezke mugikortasuneko agenteak Errotaburuko biribilgunetik arau-hausleak “harrapatzen” saihesbidetik atera eta Tolosako hiribidean sartzen diren (edo alderantziz) gidarien artean. Neurketa horretan, bost minutu eskasetan, hirurogeitik gora ibilgailu antzeman zituen radarrak abiadura mugatik gora zirkulatzen.

El nuevo radar móvil se puede usar con trípode sobre una acera junto a la calzada: “lo normal”, dice la Concejala Delegada. Pero puede que no sea así y que los agentes estén dentro del vehículo, o escondidos detrás de algún elemento en la vía pública. La Concejala Delegada asegura que los agentes “no se van a camuflar”. Sin embargo, esta situación no se está dando, como intuíamos, y como demuestran varias fotografías de vecinos y conductores (compartidas en las redes sociales) que han fotografiado a agentes de movilidad “cazando” infractores desde la rotonda de Errotaburu a los conductores que salen de la variante y se incorporan a la Avenida de Tolosa, y viceversa. En esa medición, en apenas cinco minutos, el radar captó a más de sesenta vehículos circulando por encima del límite de velocidad.

Neurri horren egokitasunari eta dirua biltzeko grinari buruzko kexak laster iritsi dira, eta gidari asko daude haserre Udalaren zerga bilketarako nahitzat jotzen duten jarduketarekin. Izan ere, Donostia bere gidariei isun gehien jartzen diren hirietako bat da, Madrilen eta Bartzelonaren atzetik, eta gainera, gure hirian, gidarientzako zergak ez dira gutxi, ezta merkeak ere.

